



HAUTESKUNDE OROKORREN ONDOKO INKESTA (2019ko azaroa) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia azaroaren 10eko Hauteskunde Orokorretan EAEko biztanleek izandako hauteskunde portaera izan da.

Landa lana Hauteskundeen ondoko egunetan egin zen, 2019ko azaroaren 11 eta 12a bitartean.

INTERESA ETA HAUTESKUNDE-KANPAINAREN JARRAIPENA

Hauteskundeekiko interesa txikitu egin da apirilekoekin alderatuta

Herritarren %61ek diote interes handia edo nahikoa izan dutela azaroaren 10eko hauteskundeekiko; jaitsiera nabarmena da hori apirileko Hauteskunde Orokorrekin alderatuta, momentu hartan %79k esan bait zuten hori bera.

Inkestatuen %66k hauteskunde kanpaina jarraitu dute telebistaz gutxienez astean bi edo hiru aldiz; %49k egunkarietan eta %42k irratiz. %47k internetez edo sare sozialen bidez jarraitu dute, gutxienez noizean behin.

Hauteskunde hauek hizketa gai izan dira askotan edo noizean behin familiarekin %67rentzat, lagunekin %59rentzat eta lankide edo ikaskideekin %39rentzat.

Herritarren %71k hautagairen baten elkarrizketa edo debaterik ikusi dute kanpaina zehar, %46k alderdiren baten hauteskunde propaganda edo programa irakurri dute eta, aldiz, %5 bakarrik joan dira bilera edo mitinen batera.

Oro har, esan daiteke hauteskunde kanpainarekiko interesa eta jarraipena apirileko hauteskundeekikoa baino apur bat txikiagoa izan dela, eta 2015 eta 2016ko Hauteskunde Orokorretako ohiko neurrietan mantendu dela.

HAUTESKUNDE PORTAERA

Hauteskundeen errepikapenak eragina izan du herritar askoren hauteskunde portaeran

Herritarren %57k diote hauteskundeen aurreko inkestaren baten berri izan zutela, baina gehienek (%78k) diote hauteskundeetan izandako portaeran ez zutela eraginik izan inkesta horien emaitzek.

Herritarren %46k diote botoa erabakitzeko orduan batez ere Euskadirekin lotutako gaiak eragin dietela, %32k diote Espainiako gaiak eragin dietela gehien eta %16k biek. %39k diote hauteskundeak errepikatu izanak asko edo dezente eragin diela beraien jokabidea erabakitzean.

Boto-emaleen %80k erabakita zeukaten hauteskunde kanpaina hasi aurretik, botoa ematera joango zirela, %10ek kanpaina zehar erabaki zuten, %2k hausnarketa egunean eta %7k hauteskundeen egunean bertan. Botoa ez emateko erabakia apur bat beranduago hartu zuten, %61ek erabakita zuten kanpaina hasi aurretik, baina %14k kanpaina zehar erabaki zuten, eta %18k hauteskunde egunean bertan.

Herritarrek botoarekiko agertutako konbentzimendu maila jaitsi egin da apirileko hauteskundeekin alderatuta. Boto-emaleen %59k konbentzimenduz eman zuten botoa (apirilean %71k), %11k zalantzekin (apirilean bezala) eta %29k aukera txarren artean onena zelako (apirilean %17k).

Botoa ematera joan zirenen %96 konforme daude emandako botoarekin. Botorik eman ez zutenen artean, %19k bakarrik diote, emaitzak ikusita, nahiago luketela botoa ematera joan izan balira.



Botorik ez emateko arrazoi nagusia politikariekiko desengainu sentimendua izan da botorik eman ez zutenen %44rentzat eta beren borondateaz besteko arrazoiak %19rentzat.

EMAITZEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Gehiengo zabalak negatibotzat ditu Espainiako emaitzak eta positibotzat Euskadikoak

Herritarren %90ek dakite PSOE izan dela Espainian boto gehien lortu dituen. Gehiengo zabalak (%77k) dio Espainiako emaitzak negatiboak izan direla eta %18k bakarrik positiboak direla. Hau erabateko aldaketa da Espainiako emaitzen balorazioan, apirileko hauteskundeetan ondoren %81ek esaten bait zuten emaitzak positiboak zirela eta %7k bakarrik negatiboak zirela.

Euskadin boto gehien lortu dituen alderdiari buruzko ezagutza apur bat txikiagoa da, %82k dakite EAJ izan dela. Euskadiko emaitzen balorazio positibo oso zabala (%86) apirilekoaren antzekoa da (%89).

HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK

Gehiengoak uste du EAJk izango dituela boto gehien

Herritarren %84k uste dute 2020ko Hauteskunde Autonomikoetan EAJk lortuko dituela boto gehien.

Hauteskunde Autonomiko horietan boto gehien lortzea nahi luketen alderdiari buruz galdetuta, %41ek EAJ aipatu dute, %11k EHBildu, %6k Elkarrekin Podemos eta beste %6k PSE-EE.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 750 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\%3,65$ ekoa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2019ko azaroaren 11 eta 12a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 15ean